

Zure taldekoak gara

KIROL ARLOAN SEXU ABUSU ETA JAZARPEN ETA SEXUAGATIKO JAZARPENAREN AURKAKO ARRETA ZERBITZUA

Min egiten dizun botere gehiegikeria sumatzen duzunean.

Emakumea edo ezberdina izateagatik gaizki tratatzen zaituztenean, eta zuri min egiteko erabili.

Behin eta berriz makurrarazten edo irrigarri uzten zaituztenean, edo/eta zure gorputzari buruzko irainak entzuten dituzunean.

Zuk nahi ez dituzun sexu izaerako portaerak izatera behartzen zaituztenean.

Emakumeen, sexu aniztasunaren edo genero identitatearen aurkako irainak, hitz itsusiak edo desatseginak ohiturazkoak bihurtzen direnean.

Helduek izaera pornografikoa duten edukiak igorri edo eskura jartzen dizkizutenean.

Zure bizitzari edo bizitza sexualari buruzko galderak egiten dizkizutenean.

Zure entrenatzaile, teknikari, talde edo klubak zure bizitza kontrolatzeko borondatea duela sumatzen duzunean.

Zure baimenik gabe, estualdian jarri zaitzaketen argazkiak edo beste mota bateko eduki digitalak bolo-bolo dabiltzala dakizunean.

Zuen baimenik gabe, helduak bai aldageletan bai biluzik egon zaitezketen beste gune batzuetan sartzen direnean.

Dutxatzen ari zaren bitartean, helduak bertan gelditzen direnean.

Sekretuak gordetzeko betebeharra edo xantaia bezalako estrategiak erabiliz, manipulatu nahi zaituztenean.

Zuk nahi ez dituzun sexu izaerako proposamenak jasotzen dituzunean.

Sexu mesedeen edo izaera intimoa duten mesedeen truke, kirol abantailak edo lehentasunezko tratua eskaintzen dizutenean.

Egokiak edo beharrezkoak ez diren mezuak jasotzen dituzunean, horiek gaizki sentiarazten zaituztenean eta, gainera, kirol harreman profesional batean ulertezinak direnean.

ZURE KIROL ESPARRUAN HORRELAKOREN BAT JASAN, IKUSI EDO GERTATZEN ARI DEN SUSMOA BADUZU, DEITU. AHOLKATU ETA LAGUNDUKO ZAITUGU.

#688 671 000

GOGORATU! ERRESPETUA DA GAKOA. DEITU. AHOLKATU ETA LAGUNDUKO ZAITUGU.

www.euskadi.eus/zuretaldekoakgara
zuretaldekoakgara@euskadi.eus

Zure taldekoak gara



KIROL ARLOAN SEXU ABUSU ETA JAZARPEN ETA SEXUAGATIKO JAZARPENAREN AURKAKO ARRETA ZERBITZUA

#688 671 000

Behin eta berriz makurrarazten edo irrigarri uzten zaituztenean, edo/eta zure gorputzari buruzko irainak entzuten dituzunean. Zuk nahi ez dituzun sexu izaerako portaerak izatera behartzen zaituztenean.

Gogoratu! Errespetua da gakoa



Euskadi, arazolana, bien comin

